

ZAPIRAIN'DAR JOSE JAUNAREN

OROIMENGARRIRAKO

EUSKAL zale aundiya zalako, alde batera, Auzbakideko (Konsistorioko) lagun zintzoa zalako ere, beste aldera, Zapirain'dar Jose zana, bizitz onetatik eta obitik ere aruntzago nere oroimen gozoa bিraldu nai diyot, bere arimarentzat betiko pake, atseden ta zoriona eska tzen diyozkatela biyotz-biyotzetik Zeruko gure Aita maitagarriyari.

Bego bada beti gure gogoan ta Jaungoiko'aren magalean.

PRADERE'TAR BLAS, *apaizak.*

JOSE ZAPIRAIN-EN ERIYOTZAN

IŠILDU da euskal kanta estitsuakin alaitzen gindubena. Zer samintsu utzi gaituben. Jaunak beregan dezala.

MIGEL SALABERRIA

AGUR ZAPIRAIN

Ez det esango alkarren berri jakingo degula, ezin liteken gauza dala-ko; bañan zu zeruban ta gu lurrian danok euskeraren aldeko lanari jarraituko diogula, ori bai egi egiyaz esango detala.

Zauden tokiyan zaudela ezin egongo zera zure kanta zarrak gogotik eta pozkiro kantatu gabe, gure izkuntza ta oitura maitagarriak goitu gabe. Guk ere ori bera egiten degu, zuk baño kemen guchiyagokin izan arren; ta orra nola lan batian arkitzen geran: zeruban zu ta gu lurrian.

Agur bada, José.

TORIBIO ALZAGA